EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:
ELIZATXO IKASTOLA HLHI

Ikastetxearen kodea:
012654

Data:
2023ko EKAINA

1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua
Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Elizatxo Ikastola, Hernanin kokatzen den zentro publiko bat da. Bertan, HH eta LH etapak irakasten dira. Hernaniko biztanleria nagusiki langilea da, eta gure eskolara datozen ikasleen familiak maila sozioekonomiko ertaina dute. Hernanin HLHIko beste hiru ikastetxe publiko gehiago daude eta Ikastola bat: Langile ikastola, Txirrita Herri ikastetxea , Urumea Ikastola eta Aratz.

Elizatxo Ikastola 1988/89 ikasturtean sortu zen eta urte hartan, lerro bakarreko ikastetxea zen. 1993/94 ikasturtean, sare publikoan sartzeko erabakia hartu zen. Ondoren, Hezkuntza Sailak hezkuntzaren erreforma, eta honekin batera, mapa eskolarra eratu zuenean, Gabriel Celaya ikastetxea Elizatxon integratu zuen eta bertan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxea jartzea erabaki zen. 2009. urtean, Eusko Jaularitzaren Hezkuntza Sailak Hernaniko Institutoan ikastetxe guztietako DBH mailak fusionatzea erabaki zuen. Gaur egun, bi lerroko ikastetxea bihurtu da nahiz eta, aurten, LH 6. mailan, hiru lerro ditugun.

Elizatxo Ikastolan, gaur egun, 377 ikaslek ikasten dute eta etorkinen kopurua %15 ingurukoa da. Gure ikastetxea hiru eraikinetan banatua dago: HH, LHko eraikin nagusia eta LHko eraikin berria. HHn 8 ikasgela ditugu eta LHn 13. Bestalde, irakasle gela, psikomotrizitate gela, ingelerako gela eta jangela txikia HH eraikinean kokatuak daude. Zuzendaritza, irakasle gela, musika gela, jangela eta LH1.mailatik LH3.mailara bitarteko gelak eraikin nagusian kokatuak daude. Informatika gela, tailerra, laguntza gela, liburutegia, aniztasun gela eta LH4.mailatik LH6.mailara bitarteko gelak eraikin berrian kokatuak daude.

Gure ikastetxeko gurasoak gazteak dira eta % 90ek wifia dute etxean eta horietatik % 70ek gailu digitalak dituzte. Eskolako guraso guztiak emailez jasotzen dute informazioa eta hau da eskola eta tutoreekin komunikatzeko bide nagusia.

Hernanik 20.000 biztanle inguru ditu, eta puntu geografiko ezberdinetatik datozen ikasle atzerritarrak ditugu (Europa, Afrika, Asia...), kultur, erlijio, gizarte... ezberdinak dituztelarik.

Klaustroa 40 pertsonez osatuta dago maisu-maistra, berezilari, hezitzaile, administrari... artean.

Gure ikastetxeak, Leoka guraso elkarteak eskaintzen duen goizeko zaintza eta hainbat eskolaz kanpoko jarduera antolatzen ditu, honela, gurasoen kontziliazioa errazten da. Eskola kirola ere eskaintzen da eta, bertan, herriko beste ikastetxeko ikasleekin harremantzen dira.

Elizatxo ikastolako xede nagusia, gure ikasleak bizitzarako heztea eta, digitalizazio planaren bitartez, trebatzea da. Horretarako, ikasleek izan beharreko digitalizazio irteera profila diseinatuko dugu.

Azpiegiturak
Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Gelak ez dira oso handiak, batez ere eraikin berriko gelak. Baina, leiho asko dituzte eta oso argitsuak dira. LHko gelak, etorkizunari aurre egiteko beharrezkoak diren bitarte teknologikoekin hornituak daude. Halaber, LH5 eta LH6 mailatako geletan ikasle bakoitzarentzat chromebookak edo minieramangarriak ditugu dagokien armairuetan.

Gela guztietan irakasleak ordenagailua izatea bermatu dugu baina HHko eraikinean, zenbait geletan ez dago ordenagailurik. Kasu honetan, ikasleen minieramangarriak jarri ditugu irakasleak beraien eginkizunak bete ahal izateko (familiekin komunikatzeko email bidez eta asistentzia jaso ahal izateko). Alde honetatik, irakasleentzako mahai gaineko ordenagailuak beharko genituzke gelako beharrak asetu ahal izateko. Bestalde, LHko irakasleak geletan erabiltzen dituzten ordenagailu batzuk ez dabiltza batere ongi eta Hezkuntza Sailak 2. eta 3. zikloetako irakasleentzat bidali behar zituen 23 ordenagailuetatik, 8 besterik ez zaizkigu iritsi.

LHko ikasgela guztietan arbela digitalak ditugu. HHn, berrriz, 5 urteko geletan eta ingeleseko gelan bakarrik ditugu arbela digitalak. LH ko 1. mailatik 3. mailara arteko geletan arbela digitalak kendu, eta, horien ordez, pantaila digitalak jarri dizkigu Hezkuntza Sailak.

Wifiari dagokionez, wifia ikastetxe guztian daukagu. Abiadura handiko konektibitatea dugu. Bainan HHko eraikinean, 2 switch besterik ez daude: bat ingelerako gelan eta, bestea, irakasle gelan. Askotan konektibitate arazoak ematen ditu.

Iaz, 2021-22 ikasturtean, IKT/Komunikazio batzordea sortu genuen eta bertan ikastetxeko beharrak eta zalantzak aztertzen dira. Ikastetxean gertatzen diren matxurak ikastetxeko IKT arduraduna konpontzen saiatzen da. Bestela, CAUra bideratzen dira.

2021-22 ikasturtean, Voip Batera telefonogunea jarri ziguten. Bainan oraindik mugikorrak falta zaizkigu.

Honekin batera, ikasle bakoitzak bere eskolako Google kontua sortua du eta eskolako e-maila erabiltzerakoan, segurtasuna eta datuen pribatutasuna hartzen ditugu kontuan. Ikasle eta gurasoei ere gailu digitalen erabilera arduratsua bultzatzeko ikastaroak egiten dira ikasturtero, Leoka Guraso Elkartearen eskutik.

Proiektuaren justifikazioa
Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Proiektu hau, ikastetxearen konpetentzia digitala hobetzeko garatu dugu. Azken urteetan hezkuntza prozesua hobetzeko ikastetxean txertatzen eta egonkortzen ari garen hainbat baliabide, tresna eta zerbitzuak ere, ikasle zein irakasleen konpetentzia digitala garatzen lagunduko digute.

Hobekuntza hori aurrera eramateko beharrezkoa da:

>Ikastetxea eraldaketa-unitate bezala ulertzea.
>Bertako zuzendaritza taldeak bultzatzen dituen hobekuntza planak diseinatzea.

Horretarako, DigCompOrg markoak laguntzen digu ikuspegi global batetik:

>Gure ikastetxearen errealitatea aztertzen.
>Etorkizunerako ekintza planak diseinatzen.

Gaur egun, gure gizartea are eta digitalizatuago dago. Hortaz, ikastetxeek erantzun behar diete gizartetik eta lan-merkatutik heltzen zaizkien eskaerei. Ikastetxeek etorkizuneko hiritarrak ingurune oso digitalizatu batean ondo moldatzeko prestatu behar dituzte. Plan honek, bere gaitasun digitala hobetzeko ekintzak biltzea du helburu.

Gaur egun ezinbestekoa da teknologia erabiltzea ikastetxeko praktiketan:
>Antolamendu-alderdietan
>Irakas-ikas prozesuetan.

Plan honen bidez, honako hau egin nahi da:
>Ikastetxearen egoera ebaluatzea, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilerari dagokionez.

>Plan Digital batek hezkuntza-erakundearen estrategia digitala planifikatzeko duen potentziala aitortzea.

>Gure ikastetxea, etengabe ikasten ari den erakunde bat bilakatzea. Horretarako, beharrezkoa da digitalki konpetentea izatea.

>Hezkuntza-komunitateko estamentu guztiak inplikatzea ikastetxeko kultura digitala garatzeko.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea
Lehentasunak zehaztu.
Planifikazio maila zehaztu.
Nor izango da eragilea?

Ikastetxearen Proiektu Digitalak, gaur egun, Elizatxo Ikastola non dagoen ulertzen lagunduko digu.
Ikastetxearen egoera aztertzeko, SELFIE erraminta erabiliz, non gauden kokatuak azaltzen digu.
Ikastetxearen egoeraren **analisia**: autoebaluazioa eta hausnarketa.
Ikastetxeak nora iritsi nahi duen zehazten du: **helburuak**.
Ikastetxea egoera batetik bestera eramango duen bidea marrazten du: helburuak lortzeko **ekintzak** zehaztea.

Digitalizazio planean lanketa eta koordinaziorako hiru fase edo une bereizten ditugu:
a) 1. fasea: Analisia. Horien beharrak, ahuleziak eta arazoak osatzea eta detektatzea. Etengabe garatzen ari den fasea.
b) 2. fasea: Garapena. Egin daitezkeen ekintza ezberdinen ezarpena. Hezkuntza-komunitate osoak eta eragile zehatzek parte hartuko dute.
c) 3. fasea: Ebaluazioa. Etengabeko hobekuntzaren oinarri gisa, emaitzak bilduko dira, eta SELFIE tresna erabiliz egin diren ekintzen eta prozesuen ebaluazioa egingo dugu.
Horiek markatuko dute ikastetxearen lan plana hobekuntza prozesuan zehar.
Hala ere, garrantzitsua da zuzendaritza taldearen parte-hartzea Proiektu Digitalaren diseinu eta ezartze prozesuan: alde batetik, ikuspegi globala emateko eta bestetik, baliabideak izendatzeko eta ardurak banatzeko.

Elizatxo ikastolan plan digital honen ezarpena zuzentzeko talde bat sortu da:
• 6 kide eta koordinatzaile bat biltzen dituen IKT/Komunikazio batzorde bat, zeinen eginkizunak, gutxienez, hauek izango dira:
1. Ideiak proposatzea, suspertzea eta koordinatzea zuzendaritza-taldearekin batera eta, aurkezten zaizkion proposamenak, aztertzea.
2. Hedabideak eta baliabideak antolatzeko eta kudeatzeko estrategiak proposatu eta koordinatzea. Zentroak eskura dituen baliabideak irakasle berriei azaltzea, laguntza tekniko eta pedagogikoak erabiliz.
3. Digitalizazio plana zabaltzea ikas komunitatean.
4. Irakasleak eta ikasleak tresna, produktu eta sistema berriei buruz informatzea.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Teknologia beharrezko osagarria bihurtu da gaur eguneko irakaskuntzan. Digitalizazioak, ikasgelaz haragoko mundu bat irekitzen digu eta denon eskura dagoen eduki berriak aurkitu ditzazkegu. Gure Ikastetxearen helburua ikasleak pertsona gisa heztea eta trebatzea da, gaur egun bizi garen gizartean murgiltzeko.

Digitalizazio Planaren eskutik, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan digitalizazioa atala sartuko dugu eta ikasleen irteera profilak zehaztuko ditugu. Bestalde, gure ikasketa prozesua berdefinituko dugu eta komunitate osoari digitalizazio plana zertan datzan azalduko zaio.

Teknologiak aukera ematen digu askotariko adimenak lantzeko (adimen bisuala, matematikoa, teknologikoa…) eta ikasle gehiagora iristeko. Ikasgeletan gero eta baliabide digital gehiago ditugu eta hauek ikasketa prozesuan geroz eta baliagarriagoak dira.

Gailu digitalek, ikasleen autonomia sustatzen dute eta tresna hauei esker, ikasle bakoitzak bere erritmoan egin dezake aurrera. Tresna teknologikoak erabiltzerakoan, ez da informazioa bilatzea soilik baita ikasleek beraien eduki propioak sortzea eta besteekin partekatzea eta eskeintzea. Gizarte digitalak ere ikaslea hezten du.

Ikastetxeko proiektu digitala ikastetxearen urteko planean txertatzean, nortasun digitala eta teknologiaren arriskuak aztertuko ditugu, gure ikasleen ikaskuntzaren parte direlako eta gure nahia ikasleek teknologi berriak ongi erabiltzen ikastea delako. Horrela, Lehen Hezkuntza bukatzean, edozein esparrutan modu egokian erabiltzeko gai izatea bermatuko dugu.

Plana, urtero gainbegiratuko dugu eta bertan egindako hobekuntzak txertatuko ditugu. Baita ere planaren ahuleziak gainbegiratuko ditugu eta beharrezkoak diren aldaketak egingo dira. Emaitzak, Urteko Memorian txertatuko ditugu.

2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.
SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Ikus 1. Anexoa. Dokumentu honetan ezin dira argazkiak txertatu.

AMIA analisia
Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)
1. Lidergoan estrategia falta dugu. Gure eskolan, lidergoa ahulezi bat da. Estrategia ez dago ongi gauzatua.
2. Irakaslegoaren artean gure ezagutzak partekatzea .
3. Aplikazioak ezagutu eta hauekin materiala prestatzea.
4. Baliabide digitalak guk geuk sortzea.
5. Irakasle guztien erantzuna berdina da, denbora falta daukagu.

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)
1. Teknopedagogian, ez gara jakitun nola uztartu curriculumean.
2. Digitalizazio plana aurrera eramatea.
3. HHko geletan ordenagailu zaharrak daude eta zuzendaritza taldekoenak ez dabiltza ongi. HHko eraikin bi switch daude eta wifia ez da ongi iristen eraikin osora.
4. Irakasleentzako etorri beharreko ordenagailuak ez dira iritsi. Hezkuntza departamenduak esan zuen 2. eta 3. ziklorako, 23 ordenagailu bidaliko zituela baina ez da gauzatu.
5. Pertsonal falta dugu. RPTan ez dira IKT orduak kontenplatzen eta digitalizazioa aurrera eramateko beharrezkoa da.
6. Burokrazia gehiegi betetzen dugu.

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)
1. IKT/Komunikazio batzordea eratu dugu 2022-23 ikasturtean, eta bertan 7 irakasleek parte hartzen dugu.
2. Baliabide onak ditugu. LH5 eta LH6. mailako ikasle bakoitzak bere chromebooka dauka.
3. Ikasle bakoitzak bere emaila sortua du eta classroom ere erabiltzen dute (LH5-LH6).
4. Eduki Digitalak ere martxan jarri ditugu: Txanela, Innovamat eta Barne (mekanografia).
5. Ordenagailu gela, 24 ordenagailu eta minieramangarriz ornituta dago. LH1-LH4 arteko ikasleek bermatuta dute ordenagailu bana erabili ahal izatea.
6. Ekipo digital berriak etorri dira: LH1 mailatik LH3. mailara pantaila berriak iritsi zaizkigu.
7. Ikas komunitatearekin emailez komunikatzen gara.
8. Irakaslegoa Microsoft Office 365 erabiltzen hasi gara.

Aukerak (kanpo-faktoreak)
1. Formazioak eman eta Clasroomeko aplikazioak ezagutu.
2.Hezkuntza Sailak emandako diru laguntza eduki digitalak erosteko.
3. Mekanografia digitala currikulumean txertatua dago eta ikasturte honetan martxan jarri dugu.
4. Innovamat matematika manipulatiboa eta digitala ere txertatu dugu gelan.
5. TXANELA digitala erabiltzen dugu LH5 eta LH 6 ikasleekin gelan eta baita etxetik lan egin ahal izateko.

Autoebaluazioaren ondorioak
Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu **aukerak** areagotzeko

- Maila bakoitzean erabiltzen diren aplikazio digitalak zein diren zehaztea.
- Ordezkatuko diren aplikazioak agertzen badira, dokumentua/zerrenda eguneratu.
- Datorren ikasturtean batzorde honetan jarrai dezatela aurten dauden irakasleak ahal den heinean, informazio galera haundia gerta ez dadin.

Ahuleziei aurre egin **aukerak** aprobetxatzeko

- Batzordeak lidergoa har dezake.
- Eduki maila zehaztea komeni da eskolako erabilpen maila zein den jakiteko, gutxi, nahiko edo asko den jakiteko.
- HHko irakasleek tresna egokiak izango balituzte, digitalizazioan aurrera pausoak emango lituzkete, bai ikastetxearekiko eta baita euren ezagutzak areagotzeko.

Indarguneak optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

- IKT Batzordeak hartu duen identitate eta lidergoari esker digitalizazio plana egingo da.

Ahuleziei eta **mehatxuei** aurre egin

- Pertsonal falta dugu. IKT orduak kontenplatuta ez daudenez eta RPTan ez direnez agertzen, oso zaila egiten da orduak ateratzea.
- Mahaigaineko ordenagailuak falta zaizkigu, zuzendaritzakoak ez dabiltza ongi eta HHko geletan dauden ekipoak zaharkituak daude.

3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua
Idatzia dagoen Proiektu Digitala inplementatzea.

Deskriptorea	Epea
LG 3.2 Zuzendaritzaren erantzukizuna argi esleituta dago	2023-2025

Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 3.2 A1 Ikasketa-burutzak, ikastetxearen estrategia digitala garatzeko batzordearekin bat etorriz, iral	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1.- IKT/Komunikazio batzordeak proiektua aurrera eraman du.	Txantiloia IKT/Komunikazio batzordeko kideak Selfie	Digitalizazio arduraduna Zuzendaritza Klaustroa	2024/01/01	Hasita (%1-19)

Helburua
Ikaskuntza digitaleko teknologiaren alde onak klaustroari komunikatzea.

Deskriptorea	Epea
LG 1.2 Ikaskuntza digitalerako teknologien alde onak komunikatzen dira	2023 -2026

Adierazlea	Mota	Helmuga
	Bai/Ez	BAI
LG 1.2 A2 Zentroak, web orriaren bidez (...), zentroaren politikak zabaltzen ditu: teknologiak eta Intern	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1. Hezkuntza Sailak antolatutako ikastaroak egitea planifikatu (Digitalizazioa A1, A2).	Moodlegunea	Bidaideak	2022-2024	Prozesuan (%40-59)
2. Zuzendaritza taldeak digitalizazioari buruzko informazioa jasotzen duenean, klaustroari zabaldu.	E-mailez eta Batzorde Pedagogikoan.	IKT Batzordea	2022-2026	Hasita (%1-19)
3. Irakasleei laguntza eman teknologia digitalekin irakasteko modu berriak froga ditzaten.	Liburu eta material digitalak	IKT Batzordea	2022-2026	Hasita (%1-19)
4. Ikastetxeak ikastaro bereziak antolatu hainbat aplikazio modu egokian erabiltzeko. (Classroom, eta gaur egun gure ikastetxean erabiltzen diren aplikazio berriak, Barne, Innovamat…)	Ikastaroak eta eskolak bilatutako profesionalak	IKT batzordea	2022-2024	Hasita (%1-19)

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua
Irakasle eta ikasleak arlo digitalean gaitzea.

Deskriptorea	Epea
II 1.1 Pertsonala eta ikasleak gai dira arlo digitalean	2023-2026

Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.1 A1 Egutegi bat finkatu da lan saioak ezarriz, IIBen erabilera landu eta irakasleen artean jardunbide	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1. Aplikazio berriak ezartzean, irakasleei laguntza ematea (Innovamat, Txanela, Barne). Eredu pedagogikoak digitalizazioarekin lotu eta elkarlana eta talde lana sustatu.	Ikastetxean erabiltzen diren aplikazioak eta sartu litezkeen berriak.	Komunikazio batzordea	2023-2024	Prozesuan (%20-39)
2. Ikasleak aplikazio berriak erabiltzerakoan trebatu eta lagundu. Teknologia berrien erabilpen positiboa bultzatu ikasgaiak burutzeko herraminta bezala.	Ikastetxean erabiltzen ditugun aplikazioak.	Irakasle guztiak.	2023-2024	Prozesuan (%20-39)

Helburua
Gurasoak hainbat aplikazioen erabilpenetan laguntzea eta gaitzea.

Deskriptorea	Epea
II 1.4 Gaitasun digitala sartuta dago pertsonalaren balorazioan	2023 - 2026

Adierazlea	Mota	Helmuga
Familien gaitasun digitalaren garapena bultzatzeko, laguntza teknologikoa eskaini da.	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1. Ikas komunitate bat gara. Denok parte hartzen dugu irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan. Gurasoek Hezkuntza Saileko aplikazioetan arazoak dituztenean laguntza eskaini, adibidez IKASKUDEn eta eskolan erabiltzen den aplikatiboan, INIKAn baita ere laguntza eskaini, trebatu eta animatu aplikatibo horiek erabiltzerakoan.	Hezkuntzak eskeintzen dizkigunak	IKT/Komunikazio Batzordea	2023 - 2025	Prozesuan (%20-39)

Helburua
Irakasle eta ikasleei on line inguruetako segurtasuna, arriskuak eta portaera arduratsua erakustea eta adieraztea.

Deskriptorea	Epea
II 1.2 Lehenengo mailan jartzen dira online inguruneetako segurtasuna, arriskuak eta portaera arduratsua	2023-2025

Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.2 A2 Lan-talde bat sortu du eta beharrezkoak diren saioak definitu ditu datuen babesari, identitate	Ehunekotan	%80

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1. Behar diren bilerak eta informazioa helaraztea.	Pantallas amigas. Miren Ros.	IKT/Komunikazio Batzordea	2023 - 2026	Prozesuan (%20-39)

GP Garapen profesionala

Helburua
Irakasleei garapen profesionala eskaintzea ikastaroetan parte hartuz, bai Hezkuntzatik eskaintzen zaizkigunak baita ere eskolak antolatutakoak.

Deskriptorea	Epea
GP 1.2 EGPa maila guztietako pertsonalarentzat eskaintzen da	2023-26

Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.2 A1 Ikastetxeak hezkuntza-komunitatearen eskura jarri ditu zibersegurtasunari, identitate digital	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1. Hezkuntza Sailak eskaintzen duen Micfosoft Office 365a erabili eta irakasle. eus kontuetan trebatu eta zein aplikazio dituen ezagutzea eta erabiltzea.	Microsoft Office 365	Zuzendaritza	2023-24	Prozesuan (%20-39)
2. Hezkuntza Sailak eskaintzen dituen ikastaroetan izena eman, parte hartu eta egitea.	A1, A2 eta etor litezkeenak.	Bidaideak	2023-24	Prozesuan (%40-59)
3. Ikastetxeak digitalizazioarekin erlazionatutako eta irakaslegoarekin adostuz ikastaroak eskaini. Baita ere ikastetxean erabiltzen diren aplikazio desberdinetan irakaslegoa trebatzea: INNOVAMAT, BARNE, TXANELA DIGITALA	Ikastetxeko aplikazioak	Zuzendaritza	2023-24	Prozesuan (%40-59)
4. Doako aplikazioen erabilpena sustatu irakaslegoaren artean. Adibidez, Genially, Canva….	Internetek eskaintzen dizkigunak	Zuzendaritza	2023-25	Prozesuan (%20-39)

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua
Ikasleak ebaluatzeko Teknologia digitalak erabiltzea.

Deskriptorea	Epea
EJ 1.2 Ebaluazio batutzailea dibertsifikatzen da	2026/01/01

Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 1.2 A1 Ikasgaien % ... tan ikasleek lineako probako teknologiak erabiltzen dituzte, berehalako itzuler	Bai/Ez	BAI
EJ 1.2 A2 Programazioetan, ebaluazio-, autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuetan erabiliko diren tek	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1. 1. zikloko ikasleak ordenagailu gelan bere mailari dagokion on line jolasak eta Innovamat matematika aplikazioa erabiltzea.	Ordenagailu gela Instalatuta dauden programak	Irakasleak	2024/01/01	Prozesuan (%20-39)
2. 2. zikloko ikasleak ordenagailu gelan bere mailari dagokion aplikazioak erabiltzea.	Ordenagailu gela Apliikazioak	Irakasleak	2024/01/01	Prozesuan (%20-39)
3. 3. zikloko ikasleak, bakoitzak bere chromebookean bere mailari dagokion aplikazioak erabiltzea eta classroometik bidalitako atazak burutzea.	Chromebookak Aplikazioak Classrooma	Irakasleak	2024/01/01	Prozesuan (%20-39)

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua
Sortzen diren eta ditugun edukietan, digitalizazioa txertatzea.

Deskriptorea	Epea
EC 1.5 Hezkuntza baliabide irekiak sustatzen eta erabiltzen dira	2026/01/01

Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 1.5 A1 Gutxienez, departamentuen/mailen/zikloen % ... k baliabide digital irekiak dituzten webgune	Ehunekotan	%80

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1. Sortzen diren eduki digitalak Driven gordetzea partekatutako karpetetan, mailaka eta gaika.	Baliabide digitalak	Irakasleak	2024/01/01	Detektatua

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua
Ikastetxeak sare sozialen erabilera sustatzea familiei gure egunerokotasuna helarazteko.

Deskriptorea	Epea
EN 2.1 Komunikazio-estrategia esplizitua dago ezarrita	2026/01/01

Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 2.1 A1 Ikastetxeak ikastetxeko komunikazio-plan bat garatu du, informazio- eta komunikazio-proze	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1.- Irakasleek geletan, irtereetan eta eskolan egiten diren ekintzak sare sozialei bidez familiei helaraztea.	Drive Ordenagailuak Telefono mugikorrak	Irakasleak	2024/01/01	Prozesuan (%20-39)

Helburua
Familiak laguntzea Hezkuntza Sailak eskaintzen dituen plataformekin eta ikastetxeak erabiltzen dituenekin: IKASGUNE;INIKA...

Deskriptorea	Epea
EN 3.2 Pertsonala eta ikasleak elkarteetan aktiboki parte hartzera bultzatzen dira	2026/01/01

Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 3.2 A2 Ikastetxeak atal bat du bere webgunean, familiei zuzendua, eta bertan IKASGUNEA plataforn	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1.Ikastetxeko webgunean, IKASGUNE, INIKA... ko sarbidea izatea.	Webgunea	IKT/Komunikazio Batzordea	2026/01/01	Prozesuan (%20-39)

AZ Azpiegiturak

Helburua
Ikastetxeko sarean garbiketa egitea.

Deskriptorea	Epea
AZ 2.1 Erabilera arduratsurako arauak daude ezarrita	2023-2024

Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 2.1 A1 Ikastetxeak protokolo bat du, datuen babesari buruzko legearen arabera pribatutasuna eta d	Bai/Ez	BAI
AZ 2.1 A2 Ikastetxeak prestakuntza-saioak (tutoretza-saioak) eta ikasleentzako materialak zehaztu ditu	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1. Kurtso bukaeran, ordenagailuetan dauden DESKARGA guztiak ezabatzea.	Ordenagailuak	Irakasleak	2023 - 2026	Hasita (%1-19)
2.- Karpetak ongi antolatu. HH eta LH. Bertan dagoen materiala ez bikoiztea eta gaika dena karpeta berdinean gordetzea.	Ordenagailuak	Irakasleak	2023-2026	Hasita (%1-19)

Helburua
Ikastetxe osorako wifi konexio ona bermatzea.

Deskriptorea	Epea
AZ 2.6 Agerikoak dira laguntza teknikoa eta erabiltzaileari arreta ematea	2026/01/01

Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 2.6 A1 Ikastetxeak dokumentu bat edo atal bat du ikastetxeko espazioak, ekipamendua eta baliabid	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1. Hezkuntza Sailari idatziak egin gure arazo hau konpontzeko.	Ordenagailuak.	IKT/Komunikazio Batzordea	2023-2025	Hasita (%1-19)

Helburua
Ikasleei teknologia berrien erabilera arduratsua irakastea.

Deskriptorea	Epea
AZ 2.1 Erabilera arduratsurako arauak daude ezarrita	2025/01/01

Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 2.1 A1 Ikastetxeak protokolo bat du, datuen babsari buruzko legearen arabera pribatutasuna eta da	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1.- Behar diren hitzaldi, jolas,... egingo dira teknologia berrien erabilpena arduratsua sustatzeko.	Ordenagailu Chromebooak Arbel Digitalak	Irakasleak	2024/01/01	Hasita (%1-19)

Helburua
Behar bereziak dituzten ikasleei behar duten arreta teknologikoa eskaintzea eta ematea.

Deskriptorea	Epea
AZ 2.7 Laguntza teknologiak erabiltzen dira behar bereziei erantzuteko	2024/01/01

Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 2.7 A2 Ikastetxearen eduki digitalen biltegia eguneratuta eta operatibo dago. (laguntza teknologien	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1.- Behar dituzten egokitzapen kurrikularra teknologiara eramatea.	Ordenagailuak Mini eramangarriak Chromebookak	Irakasleak	2024/01/01	Prozesuan (%20-39)

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

Deskriptorea	Epea

Adierazlea	Mota	Helmuga

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera

4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Idatzia dagoen Proiektu Digitala inplementatzea.	Ikasturte bukaeran. Ikasturtero	Hausnarketa	IKT/Komun8ikazio Batzordea		
LG	Ikaskuntza digitaleko teknologiaren alde onak klaustroari komunikatzea.	Ikasturte bukaeran. Ikasturtero.	Ziklo bileran	Zuzendaritza Taldea		
II	Irakasle eta ikasleak arlo digitalean gaitzea.	Ikasturte bukaeran. Ikasturtero.	Galdetegi baten bitartez.	IKT/Komunikazio Batzordea		
II	Gurasoak hainbat aplikazioen erabilpenetan laguntzea eta gaitzea.	Ikasturte bukaeran. Ikasturtero.	Galdetegi baten bitartez	Zuzendaritza Taldea		
II	Irakasle eta ikasleei on line inguruetako segurtasuna, arriskuak eta portaera arduratsua erakustea eta adieraztea.	Ikasturte bukaeran ikasturtero.	Zuzendaritza Taldeak eta Tutoreen bitartez egunerokotasunean. azlpenak emanez.	IKT/Komunikazio Batzordea		
GP	Irakasleei garapen profesionala eskaintzea ikastaroetan parte hartuz, bai Hezkuntzatik eskaintzen zaizkigunak baita ere eskolak antolatutakoak.	Ikasturte bukaeran ikasturtero.	Galdeketa baten bitartez.	Zuzendaritza Taldea		
EJ	Ikasleak ebaluatzeko Teknologia digitalak erabiltzea.	Ikasturte bukaeran. Ikasturtero.	Galdeketa baten bitartez.	IKT/Komunikazio Batzordea		
EC	Sortzen diren eta ditugun edukietan, digitalizazioa txertatzea.	Ikasturte bukaeran. Ikasturtero.	Drive partekatuz. Hausnarketa eginez	Zikloetan		
EN	Ikastetxeak sare sozialen erabilera sustatzea familiei gure egunerokotasuna helarazteko.	Ikasturte bukaeran. Ikasturtero.	Hausnarketa eginez.	Zuzendaritza Taldea		
EN	Familiak laguntzea Hezkuntza Sailak eskaintzen dituen plataformekin eta ikastetxeak erabiltzen dituenekin: IKASGUNE;INIKA...	Ikasturte bukaeran. Ikasturtero.	Familiei galdetuz.	Zuzendaritza Taldea		

AZ	Ikastetxeko sarean garbiketa egitea.	Ikasturte bukaeran. Ikasturtero	Kontrolak eginez.	IKT/komunikazio Batzordea		
AZ	Ikastetxe osorako wifi konexio ona bermatzea.	Ikasturte bukaeran. Ikasturtero.	Galdeketa eginez.	Zuzendaritza Taldea Hezkuntza Saila		
AZ	Ikasleei teknologia berrien erabilera arduratsua irakastea.	Ikasturte bukaeran. Ikasturtero.	Hausnarketa eginez	Irakasle guztiak		
AZ	Behar bereziak dituzten ikasleei behar duten arreta teknologikoa eskaintzea eta ematea.	Ikasturte bukaeran. Ikasturtero.	Hausnarketa eginez.	Irakasle guztiak		
IB						